

Informazio-orria

Ur-aprobetxamendurako emakida baten ezaugarriak aldatzea

Agiri honen xedea da, batetik, eskatzaileari jakinaraztea zer izapide egin behar duen jabari Publiko Hidraulikoko ur kontinentalen (azalekoen nahiz lurpekoen) aprobetxamendu-emakida baten ezaugarriak aldatzeko, eta, bestetik, adieraztea zer datu eta agiri aurkeztu behar duen horretarako.

1 Nork eskatu behar duen ezaugarriak aldatzea

Ur kontinentalen aprobetxamendu-emakida baten ezaugarriak aldatu nahi dituen edozein pertsonak edo erakundek.

Honako hauek dira funtsezko ezaugarriak:

- ☐ deribatu beharreko batez besteko emari maximo eta jarraitu baliokidea.
- ☐ korrontea eta hargunea.
- ☐ deribazioaren xedea.
- ☐ ureztatzekoa den azalera (xedea ureztatzea baldin bada).
- ☐ ibilguaren zati okupatua (aprobetxamendu hidroelektrikoa baldin bada).

Erabilera pribatiboa bada, eta emaria aldatzeak berekin badakar emakidaren emaria 7.000 metro kubikotik gorakoa izatea, F.A-0001 (Ur-aprobetxamenduaren emakidarako eskabidea) inprimakiaren bidez izapidetu beharko da.

Titularraren identitatea aldatzeko, F.A-0004 (Titulartasuna eskualdatzeko eskabidea) inprimakia aurkeztu beharko da.

2 Nola eta non eskatzen den

Bete eskabide-eredu bat, han jasotzen baita zer datu eman behar diren zer agiri aurkeztu behar diren espedientea izapidetzeko. Eskabidea telematikoki bete dezakezu, URaren webgunean eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa, edo aurrez aurre egin dezakezu izapidea (pertsona fisikoak bakarrik), eskabidea betez eta eskatutako dokumentazioarekin batera aurkeztuz, hemen:

- **Arroen egoitza nagusiko edo bulegoetako sarrera-erregistroetan:**

1 Vitoria-Gasteiz

- Boulevard eraikina
- Gamarrako atea 1 A, 11. solairua
- 01013 Vitoria-Gasteiz

2 Bilbo

- Urkixo zumarkalea 36, 7. solairua.
- 48011 Bilbo

3 Donostia

- Intxaurrondo 70, 1. solairua
- 20015 Donostia

- **Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluan jasotzen diren lekuetan (<https://www.boe.es/buscar/pdf/2015/BOE-A-2015-10565-consolidado.pdf>).**

3 Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Ahal dela, dokumentazioa euskarri digitalean eta .pdf formatuan aurkeztuko da, elektronikoki sinatuta.

- ☐ Eskabide-eredua, behar bezala beteta.
- ☐ Memoria bat, azalpen-krokis batekin batera. Memoria horretan, deskribatu behar da zer ezaugarri aldatu diren edo aldatuko diren, eta adierazi zein diren aprobetxamenduaren ezaugarri berriak.
- ☐ Erabili beharreko emariaren justifikazioa: urari emango zaion erabileraren benetako beharretara egokituta egon beharko du emariak.
- ☐ Hargune berriaren kokapen-planoa (hargunearen edo harguneen kokapena aldatu baldin bada, aurkeztu beharko da).
- ☐ Ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentua (ez dago aurkeztu beharrik, ordea, baldin eta ordezkaria alta emanda badago Eusko Jaurlaritzako Ahalordeen Erregistroan) <https://www.euskadi.eus/registro-electronico-de-apoderamientos/web01-sede/es/>):

Baimen-eskabidearen sinatzailea interesduna ez bada:

- a. Ordezkaritza bidez izapidetzen duten pertsona fisikoek notario-ahalorde baten bidez egiaztatu beharko dute ordezkariak, edo, bestela, fede-emaile publikoaren aurrean sinatutako ordezkariak-akta baten bidez. Bi aldeek sinatutako idazki bat ere onartuko da.
- b. Pertsona juridikoen kasuan, berriz, beharrezkoa izango da notario-ahalordea eta erakundea eratzeko eskritura aurkeztea, bai eta ordezkariak eskabidea sinatzea ere.
- c. Badago aukera ordezkariari alta emateko (espediente mota bera izapidetzeko), Eusko Jaurlaritzako Ahalordeen Erregistroaren bidez [Registro electrónico de apoderamientos - Sede electrónica - Euskadi.eus](https://www.euskadi.eus/registro-electronico-de-apoderamientos-sede-electronica)

4 Izapidetzea

Eskaera eta eskatutako dokumentazioa jaso ondoren, izapide hauek egingo dira:

1. Datuak egiaztatzea, dokumentazioa aztertzea eta, behar izanez gero, dokumentuak eskatzea.
2. Arroko Plan Hidrologikoarekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna baloratzea.
3. Jendaurrean informazioa ematea, probintzia-eremuko aldikari ofizialetan eta obrak eta erabilera egiten diren tokiko udaletxeetan. Argitaratze-tasa pertsona edo entitate eskatzaileak ordaindu beharko du.
4. Nahitaezko diren edo interesgarritzat jotzen diren txostenak eskatzea organismoari, unitateari, erakundeari edo entitateari.
5. Alegazioen bat aurkeztu bada, pertsona edo erakunde interesdunari ikustaldia emango zaio, 15 eguneko epean adieraz dezan bere interesak defendatzeko egokitutak jotzen duena.
6. Lekuan bertan alderaketa egingo da, beharrezkotzat jotzen bada.
7. Txosten teknikoa.
8. Pertsona edo erakunde interesdunari entzunaldia ematea, hala badagokio, baldin eta alegazioen bat aurkeztu bada, edo jasotako txostenen bat negatiboa izan bada edo txostenen batek emakidaren funtsezko ezaugarriak aldatzen baditu.
9. Eskatzaileari jakinaraziko zaio zer baldintzatan eman daitekeen emakida, hamabost egun balioduneko epean adostasuna adieraz dezan edo egokitutak jotzen dituen oharrak egin ditzan.
10. Ebazpena ematea.

Espedientea izapidetzen amaitu ondoren, Uraren Euskal Agentziak egokitutak jotzen dituen zaintza-, ikuskapen- eta egiaztapen-lanak egingo ditu, ebazpena betetzen dela bermatzeko eta jabari publiko hidraulikoa zaintzeko.

5 Ebazpenaren ondoreak

Ebazpenak amaiera emango dio hasitako administrazio-prozedurari.

Emakidaren ezaugarri berriak eta aprobetxamenduaren inskripzioa jasotzen dituen ebazpena da titularrak hura erabiltzeko legitimatzen duen agiria, alde batera utzita beste organo edo administrazio batzuek eska dezaketen edozein baimen. Ebazpen horretan, titularra identifikatzen da, bete beharreko baldintzak ezartzen dira eta aprobetxamenduaren ezaugarriak jasotzen dira.

Aprobetxamendua erabiltzeko eskubidea eten edo iraungi ahal izango da, baldintzak ez betetzeagatik edo beharrezko egiten duten inguruabarrengatik.

Administrazio-isiltasunak ez du inoiz ere esan nahi aprobetxamenduaren ezaugarri berrien aldaketa eta inskripzioa baimendu direnik.

Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren aurrean, HILABETEKO epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

6 Ebazteko epea

Uraren Euskal Agentziak gehienez ere hemezortzi hilabete izango ditu ezaugarriak aldatzeko prozedura ebazteko. Epe hori igarotakoan, eskaera ezetsitzat joko da.

Berariazko ebazpenik ez badago, inola ere ezin izango da ulertu baimena presuntzios baietsi denik.